

BALIO PROPOSAMENA

Eskola jazarpena ekiditzea eta osasun mentala hobetzea da gero eta erakunde gehiagoren xedea. Beraz, egoera kezagarri honen aurrean, arazo honi, modu berritzaile batean, urtenbidea emotea erabagi dogu. Nazio Batuen 2030 agendako garapen jasangarrirako 3. helburuarekin, guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzean oinarritua, eta 4. helburuarekin, guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzean oinarritua, lotzen dugu ideia.

Euskadiko ikastetxeetan bullying kasuak % 22 hazi dira azken ikasturtean (2021-2022). Hezkuntza Sailak eskola-jazarpenerako 157 egoera identifikatu ebazan, ziberbullyingaren hazkunde nabarmenagaz. Beraz, arazoa agerian geratu da. Osasun mentalaren egoerari dagokionez, Espainiako Pediatria alkartearen arabera, pandemiak eragin dau adinbakoen buruko nahasmenduak % 47raino igotzea.

Arazo honi modu berritzaile batean urtenbide bat emoteko, app bat egitea pentsatu dogu. Modu honetan, belaualdi gazteagoen arreta lortuko genduke eta proiektua arrakastatsua izango litzateke.

App honetan, galdera desbardin bidez, ikasleek bakarka erantzungo dabenez, ikasleen egoera hobeto ezagutzeko gai izango dira ikastetxeak. Eta modu honetan, osasun mentala edota bullyinga prebeniduteko gai izango dira. Ikastetxeek aplikazioaren bidez eta bertan egongo diran galdetegi, ikasleek eukiko dabenez idazteko lekuen, edo emergentzia alarma baten bidez, euren ikasleen egoerari buruz gehiago jakin ahalko dabe. 29719 Legearen 3. artikularen arabera, zehatz-mehatz agintzen da ikastetxe bakoitzak gitxienez psikologo bat izan behar dauela. Horregaitik, ikastetxeek jasoko dabenez emoitzak, ikastetxeeko psikologoaren esku geratzen dira, euren hobeto ulertzen dabelako ikastetxeeko ikasleak eta ikasleekiko harremana hobea baita. Gainera, arazo konkretu bat egotekotan, ikastetxeen psikologoek galdera batzuk moldatu edo gehitu ahal izango dabe; guri aldatu gura dabena azaldu eta gero. Halan be, eskola batek arazoak izatekotan psikologoagaz edo, nahiago badabe kanpoko psikologo batek emoitzak aztertzea, guk jarriko genuke psikologoa; aholkularitza zerbitzuaz gain.

Prezioari dagokionez, ikastetxe bakoitzari 1.000 euro kobrauko jakoz urteko inskripzioagaitik, eta 11 euro hilean haur bakoitzeko. Ikastetxe bakoitzaren esku geratuko da prezio hori gurasoen eta ikastetxearen artean banatzeko ehuneko.

Gure bereizgarria da bullying kasuak prebeniduten saiaturako gurela osasun mentala lantzeaz gain; biak batera, eta ikastetxeei lagunduko deusegula agian lotsatuta sentiduten diran eta bullying jasaten ari dirala esateko gai ez diran ikasleakideak identifiketako eta jazarpena edo osasun mental arazoa gertatu aurretik aurriki eta neurriak hartzeko.. Horretarako, hainbat galdetegiren bidez, eta erantzunen arabera, irakasleek eskola-jazarpenerako kasu bat jazotzen ari dala ikusi ahal izango dabe. Test bat egiteaz gain, ikasleek askatasun osoz eta pribatasuna bermatuz idazteko espazio askea izango dabe eskuragarri. Arazo posibleren bat identifikatzeko, guk aurretiaz programari ezarritako algoritmoak jazarpen edo osasun mentalakaz erlazionatu doguzan hitzak(bai guk bai psikologoak) identifikatuko dauz. Algoritmo hau inteligentzia artifizialaz osotuta egonik, egoera barrietara moldetako gaitasuna izango dau. Algoritmoak arrisku egoera bat antzematean, zuzenean alarma piztuko dau. Horrezaz gain, ikasleek aukera izango dabe alarma botoi bat erabilteko berehalako laguntza behar izatekotan. Behin identifikata, eskolaren psikologoaren esku edo guk jarritako psikologo baten esku geratzen dira test-ek emondako erantzunak eta ikasleagaz egin beharreko lana.

Hor dago aldea lehendik dagozan beste aplikazio batzuekiko. Guk, pertsonen beren egoerari buruz borondatez idatzi ahal izateko atal bat sortzeaz gan, harago joko dogu, eta osasun mentalarekin eta bullyingaren prebentzioarekin lan egingo dugu. Ez da eskola jazarpenari aurre egiten laguntzea soilik, baizik eta bullyingaren hedapenari ahalik eta lasterren aurrea hartzen saiitzea eta ikaslearen osasun mentala zein dan ikertzea aldi berean. Gure bezeroak eroso aurkitzea nahi dogunez oso zorrotzak izango gara konfidentzialtasunagaz eta datu personalen babesagaz.

Egia da dagoeneko badirela bullying-arekin lotutako aplikazioak (B-resol, Andrea, Dinantia, Errespetatzen nauzu!...). Hala ere, horiek guztiek aurre egitera eta eskola-jazarpena jasaten duen pertsonari laguntzera bideratuta daude, behin arazoak gora egiten duenean. Horietako bat ere ez dago, ikertutako guztiaren ondoren, hainbat galderaren bidez prebenitzera bideratuta. Era berean, badira hainbat arazo mentalen "diagnostikoagaz" lotutako aplikazioak, baina ez dago eskola-jazarpeneraren prebentzioa eta osasun mentalaren ebaluazioa, hezkuntzara bideratua, batzen dauzanik.